

## Ostadarreko atletek, ezin lan "egoki" egin

Pista denboraldiaren atarian, Ostadar Atletismo taldeak bizi duen egoera argitara ekarri du hainbat ekimen aurrera eramanez. Taldekide eta pista estaliko Espainiko txapeldunorde Naroa Furundarena Urkolarekin solastu gara atleten egungo nondik norakoak ezagutzeko / 10

**Pentsio publikoen sistemaren orainaz eta etorkizunaz jardun dira, borobilean** / 4

**Kulturartekotasunaz elkarrekin hausnartzeko bideari ekin dio Bizipoza Lasarte-Oria taldeak** / 5



## Prest eta gogotsu

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako finala jokatuko du Ane Labaka Mayoze / 2-3

TXINTXARRI

**PARTEKATU**

batzuk zuretzat eta beste batzuk zuk nahi duzunarentzat

**2MÓ 229€**

erreflexuen aurkako betaurreko progresiboak

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.



R.P.S. 91/20

**MULTIÓPTICAS**

943 37 74 55

Kale Nagusia, 15. LASARTE-ORIA



eskatu hitzordua

www.multiópticas.com



ZORIONAK  
URTE BERRI ON



**Iñigo Gonzalez Sarobe** DONOSTIA

Hilak 10, asteartea. Illunbe, Donostia. Hara eta hona dabiltza, komunikabide grafikoetako langileen jarraibideei jaramon egiten, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako (aurrerantzean, GBT) zortzi finalistak: Beñat Gaztelumendi Arandia, Alaia Martin Etxebeste, Nerea Elustondo Plazaola, Aner Peritz Manterola *Euzkitze*, Eneritz Artetxe Eizagirre, Andoni Rekondo Izagirre, Oihana Iguaran Barandiaran eta Ane Labaka Mayo. Zazpi finalistak lasarteoriatarra. Errepideko zebra bidean argazki bat, hurrengo kokalekura joateko osteratxoan kameraren klik gehiago, areto horretako atearan aurrean beste pose bat, barruan...

Irudiekin amaituta iritsi da hitzen txanda eta hedabide bakoitzak bertsolariekin eskatutako elkarrizketen aurretik, finala aurkeztuko duen eta gai jarzaileen ordezkaria den Ane Ezenarro Beristainek egin ditu kazetari lanak, zortzi bertsolariei pare bat galdera eginda. Mikrofonoa pasa diote elkarri, Labakaren txanda iritsi arte. GBTko bigarren finala du herritarrak eta "ezinbestean" alderatu du aurtengo gorputzaldia duela bost urtekoarekin: "Aurten ez bezala, udaberrian ekin nion lehiari eta bidea oso luzea eta gorabeheratsua izan zen; azken saioan egote hutsa izan zen helburua, ez zela makala izan, baina bukaerara iriste horrekin nahikoa nuen". Aurten, berriz, final laurdenetan sartu zen lehiaketara eta gorabeherak izanagatik, "oso pozik" dago egindakoarekin. Azkoitian, eta, batez ere Oartzunen erakutsi bezala, final handian ere hori nahi du, "egotetik harago, egiten ere asmatzea".

Prentsaurrekoa amaitu ostean hartu du herritarrak tarte bat TXINTXARRI-rekin hitz egiteko. **Finalaren bezperetan, nola zaude?** Atzerako kontaketa baten sentipena dut. Egon dadila dena bere tokian, joan dadila guztia aurrez pentsatu bezala eta ezerk ez dezala dardara egin; horrela nago. Finalaren aurreko astea bakarrik ez, txapelketan jokatu ditudan gainerako saioen aurreko asteekin gertatu bezala, oso luzeak egin zaizkit. Eguna iristea nahi dut, ahalik eta azkarren.

**Saio erabakigarria gorputzaldi onarekin iritsiko zarela aipatu duzu prentsaurrekoan.**

Pozik nago, txapelketan bertan eta aurretik egindako bertso es-



Ane Labaka Mayo, mikrofonoa eskuan, txapelketako finaleko aurkezpen prentsaurrekoan. TXINTXARRI

# "Ahalik eta ongien aritu nahi dut, eta gero, ikusiko dugu"

**ANE LABAKA MAYOZ BERTSOLARIA ETA GBT TXAPELKETAKO FINALISTA**

Bigarren aldiz ariko da herritarra Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako finalean. Duela bost urtekoarekin alderatuta, "beste leku batean" dago: "Askoz gehiago dut kontatzeko"

kolako entrenamenduetan nahiz plazetan erakutsi ditudalako nire bertsokera eta egindako lanketaren printza batzuk. Gipuzkoako txapelketa sentsazio horrekin amaitu nahi dut, ez dut nahi bukatu eta honakoa pentsatu: 'Aukera izugarria nuen jende pila baten aurrean eta joan egin zait'. Aurretik erakutsitakoa finalean ere islatzea da nire helburua.

**Nerea Elustondo Plazaolak aipatu du ez dela sailkapenari oso begira egongo. Eta zuk, Ane, erreparatuko diozu horri?**

Ahalik eta ariketa gehienetan erakutsi nahi dut nire bertsokera eta orain arte landutako guztia. Egiari zor, bertsolari puska batzuk izango ditut alboan eta badakit ez nagoela faboritoen artean, baina amets handia izango litzateke buruz burukora sartu eta bertan kantatzea. Edonola ere, ez nago horrekin itsututa.

Auskalo, etorriko da etorri behar dena; ahalik eta ongien aritu nahi dut, eta gero, ikusiko dugu.

**Nola abestu nahi duzu finalean, kontuan izanda askatasun mugatua**

**izango duzuela eta irizpide jakin batzuk (ariketak, gaiak...) jarraitu beharko dituzuela?**

Gaiak momentuan jarriko dizkigute eta egin beharrekoa asko baldintzatuko du baita ere bertsolarien arteko zozketek, hau da, ariketaz ariketa elkarrizketak norekin egin beharko ditugun. Hori esanda, nire azken urteetako bidetik jarraitu nahiko nuke: errima eta hitzak lantzen ditut bertsoa artistikoa eta estetikoa delako, bai; horrez gain, alde oso politiko bat ere badu, hor koka-

tzen naiz ni sortzaile gisa. Beraz, hortik abestu nahi dut, edozein plazatan bezala, ikuspuntu eta betaurreko horietatik: feminismoarekin lotuta dauden gaietatik. Ea jartzen dizkiguten gaiak aukera ematen didaten hori plazaratzeko.

**Aurtengo txapelketari udazkenean ekin diozu; Azkoitian eta Oartzunen jokatu dituzu orain arteko bi saioak. Gustura zaude egindakoarekin?**

Bai, gustura nago. Bitxia izan da, duela bost urte ere toki horietan abestu nuelako eta sentitutakoa oso antzekoa izan da.

Azkoitiako final laurdena baliatu nuen lurra hartzeko. Ez dakit, ez zait gustatzen, giroa arraro samarra izan ohi da niretzat beti, saioa ez zen lehertzer iritsi, aste txarra pasatetik ere banentorren... Ahal bezala egin, eutsi eta sailkatzea izan zen nire asmoa.

Oartzunera beste gogo batekin joan nintzen, nire bertsokera erakutsita asko disfrutatu nuen. Hobeto ala okerrago aritu izan naiz, baina ordura arte ez nuen inoiz sentitu saio bete bat egin izana. Gainera, finalerako zuzeneko txartela ez lortuta ere, birtualki sailkatuta nengoen [552 puntu bildu zituen herritarrak] eta ederra izan da zortzikotea zehaztu arteko aste horiek urduritasun horrekin ez igaro izana. Ezinegon puntu bat izan dut finalisten taldea nola osatuko zen jakiteko, baina, kontuan izanda, zortzietako bat ni izango nintzela. Luxua izan da hori sentitzea, egia esan.

**Orain zortzikotea aipatu duzula, finalista multzoaren ezaugarriak nabarmendu dituzue agerraldian zehar: Gipuzkoako aniztasunaren lagin bat dela, talde polita osatu duzuela... Nola ikusten dituzu ohol-tzan lagun izango dituzun gainerako zazpi bertsolariak?**

Oso pozik nago osatu dugun argazkiarekin eta hori mugimenduan jartzeko gogoz nago. Gainera, batzuekin oso harreman estua dut, adin desberdinetakoak izanda ere. Uste dut bakoitzak beretik egingo diogula ekarpena finalari eta mosaiko polit bat osatuko dugula: koloreak, bertsokera, abesteko moduak, gorputzak... Askotatik egin behar du eta iruditzen zait elkarrizketa politikak sor ditzakegula, zozketetan egokitzen dena egokituta ere. **Bost urte igaro dira aurreko Gipuzkoako Bertsolari Txapelketatik. Galdera sakona da, baina, zenbat**

### aldatu zara tarte horretan guztian bertsolari eta pertsona gisa?

Atzera begiratzen dut eta gauza asko pasa dira bost urteotan, tartean ama ere izan naiz... Ez dakit, esangonuke askorako eman dutela, tarte horretan egin dudalako lanketa eta bide bat, plaza dezente zapalduta. Pertsonalki, iruditzen zait beste leku batean nagoela, eta, nire esperientzia eta bizipenetatik, askoz gehiago dudala kontatzeko. Hortik abestu nahi dut finalean.

**Finalarekin ez du horrenbesteko loturarik baina tira, Oiartzungo finalurrekotik azken faserako tartean gertatu da eta hortxe galdera: Bertso Astea izan genuen Lasarte-Oriaz azaro amaieran, eta solasaldiko gonbidatuak izan zineten Beñat Gaztelumendi Arandia eta zu. Bertsoan aritu zineten eta bertsolaritzaz hitz egin zenuten, beste formatu batean. Nolako esperientzia izan zen zuretzat?**

Solasaldiaren ostean hitz egin genuen horri buruz eta oso polita izan zen guretzako. Borobilean eseri ginen eta bertaratu zirenek galdera asko egin zizkiguten, oso gertukoa izan zen. Balio izan zuen, besteak beste, bertsolariak desmitifikatzeko eta pertsonak garela erakusteko, gainera, gure jardunaren tripak-edo zeintzuk diren azalduta. Politia da bertsolaritza horrela gerturatzea jendearengana, izan ere, badirudi une jakin batzuetan gertatzen den magia dela baina, nire iritziz, asko du parez parekotasun eta hurbiltasun horretatik.

**Solasaldi horretan "sekretutxo" batzuk ere kontatu zenituzten. Besteak beste, saioa dinamizatu zuen Mailu Arrutik, umorez, "parafernalia" gisa izendatu zuenari buruz: oholtzara igotzeko bidea eta momentua, bertsolari bakoitzak taula gainera berarekin eramaten ditue-**

### nak... Finalera begira, erabakita duzu hori guztia?

Denok ditugu estrategia batzuk horrenbesteko dimentsioa hartzen duen zurrunbiloari nolabait lurra emateko. Nire kasuan, nahiko sinpleak dira urratsak: hasierako agurra pentsatu eta etxean askotan kantatu, arropa erosita eta prest izan, finalaren egunean paseo bat eman goizean eta makarroiak bazkaldu... Horrez gain, aurreko egunean ahalik eta lo gehien egiten saiatzea, hori ere garrantzitsua izango da.

Illunbera finalaren egunean bertan joango gara, bazkalostean, 15:30ak baino lehenxeago.

**Finalaren tokira, beraz, 15:30erako helduko zarete, gutxi gorabehera. Lehenago joaten zinetela uste nuen.** Hala nahi izanez gero, aurreko egunean [gaur, hilak 13] etortzeko aukera izango dugu. Duela bost urte, adibidez, bertaratu nintzen, nahi nuelako irudikatu zein izango zen hurrengo eguneko eszenatokia, bertsolaritza final bat jokatzeko espazio bezala prestatuta zegoena dagoeneko.

Elkarrizketa hau, esan bezala, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako finalaren aurkezpen agerraldiaren egunean eginda dago,

### "NIRE BERTSOKERA ERAKUTSITA ASKO DISFRUTATU NUEN OIARTZUNEN; SAIO BETEA EGIN NUEN"

### "MOSAIKO POLIT BAT OSATUKO DUGU ZORTZIOK: ABESTEKO MODUAK, KOLOREAK, GORPUTZAK..."

hau da, asteartean (hilak 10). Galdera hau erantzuterakoan, Labakak ez zuen erabakita oraindik duela bost urtekoa errepikatu eta Illunbera finalaren bezperan etorriko zen ala ez, baina bai saio erabakigarria hasi arteko tarte horretakoa.

Ikus-entzuleentzat ateak 15:30ean irekiko dituzte eta tartetxo batez oholtzara igoko naiz, gustatzen zaidalako imajinatzea nolakoa izango den areto hori, jendez beteta: aulkian eseriko naiz, mikrofonoaren aurrean jarri... Gero, ganbarara sartuko gara eta zozketa egingo dugu 15:45ak aldera, finalean zehar egin beharreko ariketak nortzuekin gauzatuko ditugun jakiteko. Une hori aprobetxatuko dugu erabiliko ditugun doinuei buruz-eta hitz egiteko, eta gero, ba horixe, ahalik eta azkarren igaro dadila arratsaldeko bostak jo arteko denbora.

## GBTko finala

Hona hemen Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako finalari buruzko informazioa:

- **Eguna:** Hilak 14, larunbata.
  - **Ordua:** 17:00.
  - **Tokia:** Illunbe, Donostia.
  - **Bertsolariak:** Beñat Gaztelumendi Arandia, Alaia Martin Etxebeste, Nerea Elustondo Plazaola, Aner Peritz Manterola Euzkitze, Eneritz Artetxe Eizagirre, Andoni Rekondo Izagirre, Oihana Iguaran Barandiaran eta Ane Labaka Mayo.
  - **Aurkezleak:** Ane Ezenarro Beristain eta Iker Iriarte Iribar.
- ETB1 telebista katean emango dute saioa.*



Argazkian, sei bertsolariak eta gai jartzailea. TXINTXARRI

## Hegoi Amabizkak irabazi du I. Imanol Lizardi Sariketa

Nor baino nor gehiago aritu ziren Hego Euskal Herriko lau lurraldeetako 16 eta 18 urte arteko sei bertsolari

### Txintxarri

Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Zerbitzuak eta Ttakun Kultur Elkarteak elkarlanean eta Earra! bertso eskolaren laguntzarekin antolatutako Bertso Astearen azken saioa gauzatu zuten azaro amaieran Mirentxun. Bertan jokatu zuten I. Imanol Lizardi Sariketa. Lau lurraldeetako sei gazte aritu ziren bertsoan: Maddi Lasa eta Aratz Arzelus gipuzkoarrak, Iraide Onaindia eta Hegoi Amabizka arabarrak, Kelmene Abaitua bizkaitarra eta Kattalin Lizarraga nafarra. Aurkeztu eta gaia ematen, berriz, Aizpea Garmendia.

Aretoko ia eserleku guztiak bete ziren bertso saioaz gozatze-ko. Lehen lerroan, Euskara zinegotzi Jon Antxordoki, Ttakun KEko lehendakari Mari Karmen Ormazabal eta Imanol Lizardiren alargun Ana Eizmendi. Haien aurrean jarritako sei aulkietan eseri ziren, gai jartzaileak deitu

eta txalo artean sartu ondoren, aipatu sei bertsolariak.

Agur bana eginez ekin zieten lanei. Mikrofonoarekin zenbait arazo izan zituzten saioan zehar eta urduritasunak ere nahi baino gehiago eragin zien bertsolari batzuei. Azken hitzak errepikatzen lagundu zieten aretoa bete zuten ikus-entzuleek eta txaloekin animoak eman ere. Bildutako puntuekin, Amabizka eta Abaitua sailkatu ziren buruz burukora.

Agurren aurretik ezagutarazi zuten epaileen erabakia. Amabizka izan zen txapelduna. Azken bertsoa abestu aurretik oroigarri bat eman zien Earra! bertso eskolako kide batek. Alboan izan dituzte Antxordoki, Ormazabal eta Eizmendi. Garailearen txanda iristean 400 euroko saria, oroigarria eta zapia jarri zioten sorbalda gainean. Txapeldunordeari, berriz, 200 euroko saria eta oroigarria.




# 'IKASTALOA'

Abenduak 19, ostegunean Ttakunenean.

Bi txanda izango ditugu: 17:00etatik-18:30era eta 18:30etik 20:00etara

\*12 urtetik beherakoek heldu batekin joan behar dute

Izena emateko: [kultura@ttakun.eus](mailto:kultura@ttakun.eus) edo 695 78 53 89 telefonoan.



# Borrokatzetik ez dute erretirorik hartuko

Pentsio publikoen orainaz eta geroaz gogoeta egiten itxi du urtea Borobilean Elkarteak. Gai horren bueltan lanean ari diren eragileetako lau kide gonbidatu dituzte: Karlos Etxeberria, Nekane Berriotxo, Joxean Urkiola eta Sole Agirre. Herritarrek ere ekarpenak egin dituzte

## Iñigo Gonzalez Sarobe

Pentsio publikoen orainaz eta geroaz gogoeta egiten itxi du urtea Borobilean Elkarteak. Gai horren bueltan lanean ari diren eragileetako lau kide gonbidatu dituzte: Euskal Herriko Pentsionisten Mugimenduko kide Karlos Etxeberria, Onea plataformako ordezkari Nekane Berriotxo, Duintasuna elkarte kide Joxean Urkiola eta Irungo Pentsionisten Mugimenduko ekintzaile Sole Agirre.

Onea Emakume Pentsiodunen Plataformako kide Nekane Berriotxoak argi esan du: "Zaharzaroa ez da gaitza, bizitzako etapa bat baizik". Fase horretara iritsi direnek ere, jakina, badituzte kezka, mahai inguruko sarrerako hitzartzean saioaren moderatzaile Olatz Arozenak nabarmendu duenez: "Zenbat urterekin jubilatuko ahalko naiz, eta, erretiratzerakoan, zenbat euroko pentsioa kobratuko dut hilero?". Gai hori "orainekoa eta etorkizunekoa" dela esan du segidan, izan ere, "gauro soldatek baldintzatuko dituzte biharko pentsioak". Zentzu horretan, oso kontuan izateko gauza bat jarri du mahai gainean: prekaritatea. Aurreko logika berari jarraituta, oraingo ordainsariak prekariorik badira,



Ohi bezala, herritarren jakin-mina piztu zuen solasaldia. TXINTXARRI

etorkizuneko pentsioak ere halakoak izango direlako.

## Borrokatzearen garrantzia

Ugariak eta aberatsak izan dira lau gonbidatuek solasaldiko gaiari buruz kontatutakoak. Nabarmendu duten gakoetako bat izan da orain arte egindako bidearekin ez konformatzea eta borrokatzen jarraitzea. "Argi erakutsi dugu gaitasuna badugula gauzak aldatzeko". Euskal Herriko Pentsionisten Mugimendua eta beste eragile asko 2018an sortu zituzten, orduko

Espainiako Gobernuako Enplegu ministro zen Fatima Bañezek gutun bat bidali zienean pentsiodunei, jakinarazteko ordainsariak %0,25 igoko zizkiela. Horrek "sutan" jarri zituen milaka herritar eta kaleak hartu zituzten, mota askotako ekintzak (elkarretaratze eta manifestazioak, batez ere) aurrera eramaten hasteko.

Pentsiodunen artean generoaren aldagaia ere nabarmendu dute, argi adierazteko emakume asko eta asko gizonak baino egoera prekarioragoan daudela.

## Bizikletarako, adinik ez

Atsokarreko Eguneko Zentzoko egoiliarrek osteratxo eder bat eman dute herrian barrena, Bizikletan Adinik Ez egitasmo kideen laguntzarekin. Giro hotzari aurre egiteko apropos jantzita, tarte ederra igaro dute kalez kale eta topatu dituzten herritarrek jator agurtzen. 2017tik ari dira ekimen horretako lagunak pertsonen bizi kalitatea hobetzeko lanean.



TXINTXARRI



MAITANE EIZMENDI

## Ertz taldea, maketa lehiaketan

Bost gazte lasarteoriatarrek sortu dute Ertz taldea: Ane Jimenez (trikitixa eta ahotsak), Lander Jimenez (tronpeta eta tronboia), Oier Toquero (gitarra eta ahotsak), Leire Anabitarte (baxua) eta Urtzi Furundarena (bateria). Beste egitasmo batzuetan parte hartu izan dute edo ari dira eta urrats bat gehiago egitea erabaki dute, euren abesti propioak sortzearena alegia. Gaztea irratia maketa lehiaketan hiru entzun daitezke: *Esaidazu, Martxoak 21* eta *Txikitako erretratua*.



TXINTXARRI

## Errumaniaren Eguna ospatzen

Decebal elkarteak Errumaniaren Eguna ospatu zuen igandean, hilak 1, Gizarte Etxean bazkaria eta festa eginda. 1918an Transilvania Errumaniarekin elkartu zen egunaren omenez. Gipuzkoan bizi diren errumaniarrak batu ohi dira nazio horren parte direla eta etorkizun hobe baten itxaropena dutela adierazteko. Jaioterriko plater ohikoekin osatutako menua bazkaldu eta Bogdy Stoika folklore taldearen kontzertuaz gozatu zuten, dantza tradizionalak eginez. Gainera, Aita Noelen bisita jaso zuten. Tradizioaren eta identitate nazioanalaren adierazgarri, jantzi ohikoak soinean zituzten askok.

## Eredu eman bitartean, hezi

Lasarte-Oriako Altxa Burua ekimeneko kideek gonbidatuta, Orainprebentzioa adikzioak saihesteko egitasmo kide Mikel Cerezok hitzaldi interesgarri bat eman zuen Antonio Mercero aretoan. Gailu digitalak erabiltzeak "argi-ilunak" dituela nabarmendu zuen, hau da, badituela "arriskuak", baina baita "positiboak" izan daitezkeen erabilerak ere.



TXINTXARRI



Talde argazkia atera dute, solasaldi amaieran, bertaratu diren guztiek. TXINTXARRI

# Kulturartekotasunaz hausnartu dute, batera

Kulturartekotasunaz solastatu dira Bizipoza Lasarte-Oria osatzen duten eragileak. Mercero aretoan elkartu dira herriko gazteekin hezkuntzaren, kirolaren eta aisiaren alorrean lanean ari diren zenbait eragiletako ordezkariak. Saio emankorra izan da

## Txintxarri

Ikasturte honetan kulturartekotasuna lantzea erabaki du Lasarte-Oriako Bizipoza taldeak. Horretarako, lantaldeko kide diren eragileek gaiak elkarrekin hitz egin eta elkar entzuteko dinamikak abiatu dituzte; Mercero aretoan aurrera eraman dute lehena. Bertan izan dira Bizipoza elkarteak, herriko ikastetxeetako (Garaikoe-txea-Landaberri, Sasoeta-Zumaburu eta Oriarte BHI) ordezkariak, Ostadar SKT, Kukuka Antzerki eta Dantza Eskola, Ttakun Kultur

Elkartea eta Kumme Elkarteak. Bizipoza elkarteak ordezkari Mاريو Martinezek gidatu du solasaldia; honako galderak luzatu dizkie gonbidatuei, horiek euren esparruari dagokion hausnarketak plazaratzeko: Kulturartekotasunaren gainean, zein da gaur egungo egoera, erradiografia? Zein behar ikusten dituzue? Horiek asetzeko zein baliabide behar dituzue?

Olaia Rekondo Garaikoe-txea-Landaberriko zuzendariak hartu du hitza, ikastetxearen ordezkari gisa, eta mahaigaineratu, ikasketa zen-

troaren gaineko diagnosiari esker eskuratu dituzten datuak. Aipatu du, adibidez, ikasleen %30 baino gehiagok etxean euskal kultura ez den beste bat duela; datu horren aurrean, gaiari "heldu beharra" ikusi du. Nabarmendu du "zail" egiten zaiela atzeritik datozen haur eta familiei euskal kulturarekiko interesa piztea. Antzematen dituzten beharrei dagokienez, esan du administrazio publikoen laguntza behar dutela, eta harrera plan baten ezinbestekotasuna ere aipatu du.

Oriarte BHIin diagnostiko bat aurrera eraman dutela jakinarazi dute ikasketa zentro horretako ordezkari Aitziber Lekuona eta Eneko Sierrak. 816 ikasle ditu ikastetxeak une honetan, eta horien guztien artetik, %12 Euskal Herri-rik kanpo etorriak direla jaso dute. Hizkuntzari dagokionez, bildu duten informazioaren arabera, ikasleen %33aren ama hizkuntza euskara da, nahiz eta %93k hitz egin eta ulertzen duen. Ikastetxera iritsi berri diren ikasleek, heldu eta aste gutxitara sentitzen duten herriminaz ere mintzatu dira; hori artatzeko egitasmo baten beharra nabarmendu dute.

Sasoeta-Zumaburu ikastetxeak ere galdetegi bat igorri die bertako komunitatea osatzen duten familiei, eta jasotako erantzunetatik zenbait foku nagusi bereizi dituztela azpimarratu du Oiarza Pampliega zuzendariak. Horieta bati buruz hau aipatu du: "Benetako integrazioa emateko norbera sentitu behar da hemengo parte, eta horretarako, euskal kultura eta hizkuntza erakusteko aukera eskaini behar zaie; horrez gain, atzeritik datozenena ezagutzeko espazioak ere bilatu behar dira". Berak ere etorri berrientzako arreta gune bat galdegin du.

Imanol Bardajik hartu du hitza gero, Ostadar SKTren izenean, eta, gainerako hizlari askok bezala, bera ere kirol taldeari dagozkion zenbait datuz mintzatu da. Esan du, adibidez, herri mailan mila kirolarirekin lan egiten duela klubak, eta hori hala izanik, kirol elkarteak Lasarte-Oriaren ispilu gisa aurkeztu du: "Gizartean gertatzen dena, gure klubean ere jatzoten da. Honekin esan nahi dudana da, gizartea anitzagoa den bezala, Ostadar ere halakoa dela; askotariko jatorritako erabiltzaileak ditugu, gero eta gehiago". Eztabai-

dagaiarekiko baikortasuna azaldu du, nahiz eta lanketa egiteko laguntza eskatzeko beharra azaldu duen.

Kukuka Antzerki eta Dantza Eskolaren txanda izan da ostean. Eskolaz kanpoko eragile bat izanik, erabiltzaileei eskaintzen dien espazioa "irekiagoa" dela nabarmendu du Kontxu Iartza eskolako antzerki sailaren arduradunak. Honako adierazpenok egin ditu gero: "Aukera oso ona eskaintzen die antzerkiak. Hor badute espazioa beraiek diren bezala agertzeko". Irati Iglesiasek, berriz, dantza irakasle gisa hitz egin du, eta, mahaigaineratu, espazioekin duten arazoa. Erakundeen "inplikazio handiagoa" beharrezko ikusi dute biek ala biek.

Kulturartekotasuna definitzeko beharra adierazi du Haritz Salaberria Ttakun Kultur Elkarteak kudeatzaileak. Komunitate kultural bat osatzen duen elementu nagusia hizkuntza dela gaineratu du gero eta, esan, hori erdigunean jartzeko beharra agertu du: "Ikasi dugu hori nola egin. Erakutsi behar diegu gurea hartzeak ez duela esan nahi beraiena galtzea".

Kumme Elkarteak kide Andrea Garciak hitz egin du azkenik. Egiten duten lana (eskola laguntzara bideratutako ekimena da) aurkeztu die entzuleei. Jakinarazi dute 56 umerekin lanean ari direla; gaineratu du, horietatik 53 migrazioa familiatan jaiotakoak direla. Ohartarazi du, gainera, beste sei ume itxaron zerrendan daudela, boluntario faltaren ondorioz ezin dituztelako hartu; gauzak horrela, boluntario gehiagoren beharra azpimarratu du. Bestetik, aurreko hizlariak esandakoarekin bat egin du; berarentzat ere harrera sistema ezinbestekoa da.

Saioa amaitzeko, kantuan egin dute Xumelako kideekin batera.

Gorde erosketa-tiketa.



# Gabonetan

## EZ IZAN TXORIBURU

Kontsumitu buruarekin  
Eta zalantzarik baduzu,

kontsumobide.eus

f X @

#KontsumitzenJakin



**kontsumobide**  
KONTSUMOKO EUSKAL INSTITUTUA  
INSTITUTO VASCO DE CONSUMO



**EUSKO JAURLARITZA**  
GOBIERNO VASCO



TXINTXARRI

## Frankismoak errepresaliatutakoei omenaldia

Oroimen historikoaren alde lan egiten duen Islada Ezkutatuak taldeak ekitaldia egin zuen Mirentxu eraikinaren kanpoaldean, duela urtebete Frankismoaren basakeria jasan zutenen omenez jarritako monolitoaren ondoan, hain zuzen

ere. Oraingoan, Errepublikak eta demokrazia defendatzeagatik errepresaliatuak izan ziren herritarrak oroitu zituzten.

Besteak beste, krabelin gorri bana hartu eta oroigarrian utzi zituzten bildutakoek.



TXINTXARRI

## Larunbat arratsaldeko sukarra

Adinez nagusi egin da Jalguneren jaialdia. Hemezortzigarrenez atera ziren jalgunetarrak agertokira, protagonista dituen festa ospatzera. Dantza eta kanta egin zuten nahi beste, aurkezleek egindako galderak erantzun, eta larunbata zergatik gustuko dituzten argi utzi zuten

Manuel Lekuona Kultur Etxeko auditorioa lepo bete zuten aurrean. Euskarak eta Aniztasun Funtzionalak aldarrikapenerako eta ikusgarritasunerako data bera partekatzen dute; horrexegatik, abenduaren 3aren bueltan aurrera eramaten du elkarteak bere jaialdia.

## Herritarrak, Durangon

59. Durangoko Azoka aurrera eramanez hilaren 5etik 8ra, Landako Gunean. Hainbat euskal liburu eta diskoren, zein horien sortzaileen topaleku izan da aipatu espazio hori, eta, tartean, izan dira lasarteoriarrak aurten ere. Pablo Barriok eta Iñaki Petxarromanek, adibidez, auren azken lanak auzeratu dituzte; 2074 eta Lehendakariaren alaba, hurrenez hurren.



REDMI NOTE 12

2024/12/06 16:17

MARTIN ANSO



NEURE KABUZ

MAITANE REBE

## Zer gizarte eraiki nahi dugu?

Azken urteetako Euskal Herriko migrazioaren aurrean, Espainiako gobernuak eman duen erantzun zigortzailea eta segregazionista zalantzan jartzekoa da. Berriki, EAEko PPK Euskadiko kasua jakinarazi dio barne-arazoetako ministerioari, segurtasun eta kontrolerako deia eginez, kohesio soziala eta elkarbizitza baketsua lehenetsi beharrean. Neurri handi batean, jarrera honek etorkin "gehiegi" dagoelaren pertzepzioari erantzuten dio.

Narratiba honek arazo bihurtzen du migrazioa. Integrazioa erronketan zentratu beharrean, enplegu falta edo etxebizitza duina kasu, bizitza hobea baten datozen kriminalizatzen dituzten politika erreaktiboaren alde egin da. Duela gutxi Donostiako kaleko afari solidarioak debekatu izanak argi erakusten du giza eskubideak eta elkartasuna urratu direla. Segurtasun-arazoak saihesteko aitzakiapen hartutako neurri horrek enpatia falta islatzen du.

Bien bitartean, gobernuak pertsonen eskubideak errespetatu dituen eta, aldi berean, komunitateen segurtasuna bermatuko duen migrazio politika eraginkorrik ezarri gabe jarraitzen du.

Bazterketa honekin jarraitzearen arriskua argia da: gizarte anitz eta indartsu bat eraiki beharrean, xenofobiarako eta arbuioarako haztegi bat elikatzen ari gara. Ateak itxi eta haute-mandako arriskuak bakarrik zentratu beharrean, guztien segurtasuna bermatuko duen estrategia inklusiboaren alde egin beharko luke gobernuak, baita Euskadira bizimodu duin baten bila iritsi direnen integrazioa aukera errealak eskainiko dituen ere.

Horrela, migrazioak aukera eta aberastasuna ekar dezakeela onartzea eta hiritartasunaren eta gizartearen kide izatearen aukera guztiak bermatzea ezinbestekoa da. Gizarte integratzaile bat eraikitzeko, pertsonen eskubideak errespetatzeaz gain, ekonomia, kultura eta politika esparruetan aurrerapenak lortzea ere garrantzitsua da. Hori lortzeko, migrazioaren aldeko politikak iraupen luzeak eta eraginkorrak izan beharko dira.

Gaur egun, herritarren artean integrazioa eta migrazioaren arazoak konpontzeko borondatea nagusi bada ere, gobernuaren neurriak eta diskurtso publikoak sarritan zatiketa eta arrakala areagotzen dituzte. Honen aurrean, gizartearen eragile guztiak elkarlanean aritu beharko gara, herriaren kohesioa, elkarbizitza eta elkartasuna sustatzeko. Migrazioa bultzatu eta migrazioari aurre egiteko aukera guztiekin, gizarte sendotuko dugu, guztien artean elkarri lagunduz eta batasunaren alde lan eginez.

## 'Kortxoaren dilema' antzezlanerako sarrerak, zozketagai

Tartean Teatroa taldeak *Kortxoaren dilema* antzezlanaren emanaldia egingo du hilaren 20an, kultur etxeko auditorioan, 20:00etan. TXINTXARRI aldizkariak bi sarrera zozkatuko ditu izena ematen duten irakurleen artean. Informazio gehiago eskura, <https://txintxarri.eus/zozketa/kortxoaren-dilema-ikus-kizunerako-sarrerak> estekan.

## AKATSAK ZUZENTZEN

Joan den azaroaren 29ko aldizkarian argitaratu genuen 10 euro balio zituela Tirabira reggae taldeak kaleratu berri duen *BAT* lanak. Informazio hori ez da zuzena, izan ere, hemezortzi abestiz osatutako bi disko horiek eskuratu nahi dituenak 25 euro ordaindu behar ditu.

Lasarte-Orian lan hori erosi nahi duenak Jalgi kafe antzokian edota Avenida zein Andatza tabernetan eskura dezake aipatu lan hori.

# Gabonetako erakusleiho ederrenaren bila ari dira

Erakusleiho lehiaketan murgilduta daude Aterpeako hamalau establezimendu. Ekimen horren harira, bi sari banatuko dituzte, eta parte hartzaileen artean ere bi. Herritarrak egitasmoan parte hartzera deitu ditu elkarteak; hilaren 15era arte dute horretarako aukera

## Txintxarri

Aterpea merkatarien elkarteak urteari amaiera emateko Gabonetako erakusleihoen lehiaketa martxan du. Elkarteak hamalau dende parte hartuko dute egitasmoan: Ormazabal loradenda, Mabel Moda, Naturhouse, Alba Moda, Orbela ekodenda, Marbell ileapaindegia, Dulce Tentacion, Lilura liburudenda, Oihana estetika, Aritza mertzeria, Alcar leihoak, Urruzola mertzeria, Imagine jantzi denda eta Maiane lurrienda.

Bi sari egongo dira jokoan; Rural Kutxa Saria eta Aterpea saria. Lehen Amai Gonzalez Caballerok, Biyak Bat erretiratuen elkarteak, Erketz EDTk eta Rural Kutxak osatutako epaimahai profesionalak erabakiko du. Erakusleihoren argiztapena, originaltasuna eta konposizioa izan beharko dute kontuan euren puntuazioa emateko. Bigarrena, aldiz, herritarren esku egongo da. Hilaren 9tik 15era, euren iritzia



Orbela ekodendan aurkeztu dute erakusleihoen lehiaketa. TXINTXARRI

emateko aukera izango dute Aterpeako dendetan eskuratu edo etxeetan jasoko duten eskuorrien bitartez; bozkak Aterpeako dendetan egongo diren kutxetan utzi beharko dituzte. Parte hartzaile guztien artean, 300 euroko balioa duten bi erosketa bono zozkatuko dituzte.

Merkatarien elkarteak aurtengo X. Pintxo Bideko sarituak

ezagutarazi zituen hilaren 3an. Jakia dastatu dutenen artean, Herriko Etxea izan da bozkatue-na (Aterpea saria jaso du); Xabier Santxo sukaldariak, berriz, Araetako mokadua eman du irabazle-tzat.

Ekimenean parte hartu dutenen artean, berriz, Isabel Martinez eta Conchi Garcia izan dira sarituak.

zehatza aurrerago jakinaraziko dutela adierazi dute antolatzaileek.

## Hilaren 24rako txartelak

Mari Domingi edo Olentzerorekin tartetxo batez egoteko aukera izango dute hurrek 24an, Antonio Mercero aretoan, 12:00etatik 14:00etara arteko txandetan, hamabi umeko multzotan. Tokia erreserbatu eta txartelak hartzeko epea (Ttakunen bulegoan, Geltoki kaleko 4. zenbakian) hilaren 17tik 20ra artekoa izango da, bi egunak barne, bulegoko ordutegian: 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.

Goizeko bisiten ostean, desfile egongo dute Mari Domingi, Olentzero eta lagunek, Okendo plazan ikuskizun bat eman baino lehen.

## Eguberrietarako jarduera ugari iragarri ditu Ttakun KEk

Xixukoren bisitek, Ikastaloak eta San Tomas azokak girotuko dute Mari Domingi eta Olentzeroren etorrera

## Txintxarri

Urtero bezala, Eguberriak euskaraz gozatzeko egitaraua prestatzen ari da jo eta su Ttakun Kultur Elkarteak, Lasarte-Oriako Udalarekin elkarlanean. Ekitaldi nagusia, nola ez, Mari Domingi eta Olentzeroren etorrera izango da; hilaren 24an iritsiko dira herrira, lagunekin batera.

Hori baino lehen, ordea, beste jarduera batzuk aurrera eramango dituela jakinarazi du euskara elkarteak. Bi pertsonaia maitatu horien lagunetako batek, Xixuko ahateak, herriko ikas-

tetxeak bisitatuko ditu 17an eta 18an, hurrek egindako marrazki politak jasotzeko.

Hurrengo egunean, eta 21eko San Tomas azokari begira, taloak egiten ikasteko ikastaro bat (Ikastaloea) egingo dute, Ttakunenea elkartean, bi txandatan: 17:00etatik 18:30era eta 18:30etik 20:00etara. Izena eman nahi dutenek [kultura@ttakun.eus](mailto:kultura@ttakun.eus) helbide elektronikora idatzi edo 695 78 53 89 telefono zenbakira deitu behar dute. Bi egun geroago, esan bezala, azoka egingo dute, Okendo plazan. Egitarau

Toponimiaren webgunea zure eskura:  
**toponimia.lasarte-oria.eus**  
LASARTE-ORIAren ondarea



Brigitarren komentuen kanpoaldea, jaiotza eta guzti. TXINTXARRI

## Musikaren, musikarien eta ikus-entzuleen topagunea

Eguberriak ate joka ditugu, eta, emanaldien agenda, ekitaldiz lepo. Horieta ugarri dira musikaren bueltan lanean ari diren eragileen kontzertuak: Danok Kide elkartearen XIX. Musika Topaketak, Zero Setteren edota Albokaren Eguberrietako emanaldiak... Horiiek guztiek badute zerbitzu komunean: musikarien eta ikus-entzuleen topagune bilakatu den Brigitarren komentuan aurrera eramango dituztela.

Herrian ezaguna den toponimo hori, nola ez, erregistratuta dago Lasarte-Oriako Udalak eta Ikermap enpresak elkarrekin ondu zuten atari digitalean. Brigitarren komentua da eraikinari gaur egun erreferentzia egiten dion toki izena, baina ez historian zehar erabili izan den bakarra: Brijidak, Brijiden konbentua eta Lasarteko konbentua adierak ere jaso dituzte. Komentuaren ondoan daude, batetik, Brigitarrak plaza, eta, bestetik, Brigitarren baratz. Era dokumentaleko beste toponimo batzuen bidez ezagutuak izan dira horiek ere. Lehenengoaren kasuan, Santa Brigida, Brigida Plaza eta Brigidak, Komentua; bigarrenarenean, Konbentuko baratza.

Ez da harrizkoa komentuak berak eta inguruko lekuek adiera ugari izana denboran zehar, 351 urteko historia duelako eraikinak. Lursail horren jabea Miguel de Okendo zen, garai horretako itsasgizon ospetsu bat. Egiten zuen bidaiari bakoitzean Santa Brigita ama birjinaren irudi bat zeraman eta bere bizitzan berebiziko garrantzia hartu zuen honakoa gertatu zenean: espedizioetako batean ontzia hondoratu egin zen istripu batengatik, baina tripulazioko kide bakar bat ere ez zen hil. Hori guztia horrela gertatu izanaren arrazoia ikono erlijioso hori izan zela sinetsita, hura gurtu eta omentzeko kapera bat eraikitzea erabaki zuen Lasarten zuen lur eremu horretan.


Brigitarrak deitutako mojek Gasteizen komentu bat zutela jakin eta bertara joan ziren Okendotarrak, euren etxea zen horretan eraikin bat egiteko asmoa zutela jakinarazteko. Ez hori bakarrik: gurtza egitea eskaini zieten, aipatu kapera hori prest zutenean. Gauzak horrela, 1671ko urtarrilaren 7an inauguratu zuten gure herriko komentua eta hiru mende eta erdi pasa direnean zutik jarraitzen du. Eta, esan bezala, fededunen biltoki ez ezik, Eguberrietan eta urte osoan zehar musika emanaldi eta kontzertuen topagune ere bilakatu da.



LASARTE-ORIAren  
ondarearen webgunea




Lasarte-Oriako toponimo edo toki izen gehiago aurki ditzakezu, QR kode hau eskaneatuz gero



## Handienetik txikienera

Ordena itzazu negutegiko arrosa hauek handienetik txikienera. Handienari 1 zenbakia eman eta txikienari 10.



GALDER

	G	D		R	
R		L		A	
		R	A	G	
	A	E	L		R
	R			L	A
D	L	A		E	

Hona hemen bi sagu karraskari sinpatiko: Galder eta Mainer. Bakoitzak sudoku bana du, baina bakarren batek hizkiak ezabatu dizkie (beharbada beste saguren batek jan ditu karraska). Orain zuri dagokizu bi sudokuak behar den bezala osatzea. Goiko sudokua Galderrena da (G, A, L, D, E eta R hizkiak ditu), eta behekoa Mainerrena (M, A, I, D, E eta R). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

	I			D	
R					A
	A	R		M	D
	D		A	R	
A					M
	M			A	

## Karraska

## Gabonetako dominoa

MAIDER



Osatu lauki zuriak domino zati hau zuzena izan dadin.






# Zenbatu

Hemengo saguak erabat lotsagabetuta daude, ezta? Hamelingo txirulariari deitu aurretik, zehazki zenbat diren jakin beharko genuke. Hortaz, zenbatu itzazu, mesedez. Eta, ondoren, koloreztatu irudi osoa, artista bikaina zara eta.

<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
																	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
																	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>



# Mezu gordea

Eman irudiño bakoitzari dagokion hizkia eta Imanol Urbietaren abesti polit bat agertuko zaizu. Hizki-marrazki alfabetoa erabilgarri izango zaizu horretarako.

HIZKI-MARRAZKI ALFABETOA

A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	Ñ
O	P	Q	R	S	T	U	V	X	Y	Z	.	,	!	?

# Itzalak

Lotu zuhaitz bakoitzari bere itzala.

Bide batez, margotu zuhaitzak horiz, berdez, laranja, marroiez, gorriz...



Ostadar SKTko Atletismo sailak sustatuta argazki erraldoia egin zuten. OSTADAR ATLETISMOA

# Ostadar Atletismo saila, berrien zain

Michelin kirol gunean kiroldegi berriko lanak hasi zirenetik, Ostadar SKTko Atletismo saila "nola hala" moldatzen ari da entrenamenduak egiteko. Taldeak ez daki egoera zenbat luzatuko den eta hainbat ekimen aurrera eramanez dituzte egoera ikustarazteko

## Nerea Eizagirre

Ostadar SKTko Atletismo sailako kideek pista estaliko denboraldia hasi dute. Datozen hilabeteetan dituzten lehiaketa guztiei aurre egiteko, prestakuntza egiten ari da taldea, baina kiroldegi berriko lanak hasi zirenetik eronka izaten ari da entrenatzaile zein atletentzat entrenamendu saio "egokiak" egitea. Atletismo sailak bizi duen egoera herriari jakinarazteko idatzi bat argitaratu zuten entrenatzaileek eta duela bi aste pista berriaren "kudeaketa txarra" salatzeak argazki masiboa egin zuten kirol instalakuntza horren aurrean. Naroa Furundarena Urkola pista estaliko jauzi hirukoitzeko Espainiako txapelkunordearekin bildu gara euren egoera zehatza zein den jakiteko.

Furundarenaren hitzetan, "ahal den moduan entrenatzen ari gara; hemendik hara eta handik hona". Atsokarreko eremuan dagoen pista berria ireki bitartean, egun Michelin kirol guneako tenis kantxa eta Donostiako kirol instalakuntzen artean banatzen dituzte saioak.

"Martxoan modulu-tik materiala atera behar genuela esan ziguten; baina ez ziguten lanak noiz hasiko ziren esan eta eremuan sartzen utzi ziguten. Gauza bat eta beste, maiatz erdialdean, egun batean, gogoratzen dut ze ni izan nintzen giltzak eskatu zituen, ezin izan ginen pista sartu. Eta denboraldia amaitu arte, Michelin kirol guneako txokoetan, errepidean, Donostiako kirol instalakuntzetan edo jangela zenaren eremuan entrenatzeko moldatzen hasi behar izan ginen ze orduan oraindik ez genuen tenis pista erabiltzeko baimenik. Hori irailetik aurrera izan dugu", nabarmendu du.

**Entrenatzeko eremu egokirik ez** Prestakuntza bi ataletan banatzen dute saileko kideek; batetik, pista, eta bestetik, gimnasio ariketak. Lehen, azken horiek egiteko gela bat zuten atletismo modulua ondoan. Orain artean, Landaberriko jangela zeneko eremu batean antolatu behar izan dute euren



NAROA FURUNDARENA, OSTADARREKO ATLETA

gimnasioa: "Guk uste genuen eremu egokiago bat izango zela baina pasilloko sobrak izan ziren". Itoginak direla eta, bitan urez bete da eremua eta egoera hori salatu ostean, aste hontan bertan, tenis pistako gelatxo bat "3x3 metrokoa gutxi gorabehera" utzi dio udalak taldeari, "justu materiala gordetzeko ematen digu".

Horren ondorioz, egoera berriarekin aurkituko direla jakitera eman du Furundarenak, "50 bat pertsona bildu izan garen eremuko iskina batean atera beharko ditugu pisuak, etab., gimnasio ariketak egiten dituzten bitartean. Ez daukagu argi nola moldatuko garen. Lehen behintzat, taldea banatzen genuen eta txandakatzen ginen; batzuk gimnasio ariketak egiten ari zirenean, besteak tenis kantxan zeuden lanean. Horrela jende gutxiago batzen ginen. Ez dira baldintza proposenak entrenatzeko".

Era berean, Ostadar SKTko futbol eta errugbi taldeei esker, astean

## Pista denboraldiari, hasiera ona

Herriko Ostadar Atletismo sailak bizi duen egoera dena delakoa ere, taldeko zein herriko beste atleten pistako proba libretako lehen hitzordua izan zuten, hilaren 8an, Donostiako Antonio Elortza belodromoan. Azken asteko eguraldiak instalazioetan izan duten eraginengatik -itoginak daude- ezin izan ziren proba guztiak aurrera eramanez. Hala ere, herritarrek lan ederra egin zuten euren probetan.

Hala nola, Ostadar SKTko Oinatz Almagro Zaldúa gazteak jauzi hirukoitzeko (12,98 m.) zein 60 m. liso lasterketan (07.57) bere markak ondu zituen eta Atletico San Sebastian taldean dagoen Nerea Eugi Zubizarreta herritarrek ere gauza bera egin zuten abiadurako proba motzuan (7.92).

Lasarte-Oriako atletismo taldeak, gainera, ordezkaritza zabala izan zuten; hogeitaz kirolari eta horietako asko adin txikiko mailetan lehiatuko dira aurretik.

Bestalde, Almagrok 20 urtez azpiko pistako Espainiako txapelketan parte hartu zuten Bidasoa Atletiko Taldearekin (BAT) Sabadellen (Katalunia). Jauzi hirukoitzeko proban lehiatu zen Lasarte-Oriako gaztea eta zazpigarren postua eskuratzeko gain, bere marka pertsonala ondu (12,69 m.) zuten, lehenengoz, denboraldi honetan.



Almagro, BATekin lehiatu zen Sabadellen. @ATLETASMODELOS

zehar ordutegi batzuetan futbol zelaiko eremu bat erabili dezaketela ere nabarmendu du: "Zerbait luzeagoa egin behar denean hor egiten da lanketa; horrek tenis pista arintzen laguntzen digu".

Horrez gain, Donostiako instalakuntzak 2023-2024 denboraldian federatuak zeuden kirolariak bakarrik erabili ditzaketela azaldu digu: "Iaz federatuak ez zeudenez ez dute aukera Donostiara joateko entrenatzera. Badago jendea igandean lehenengoz tartana zapaldu eta iltzeak jartzen zituenak. Gainera, aurretik hasi den jendeak ez du atletismo pista bat, foso bat edo tako batzuk zer diren ikusi oraindik. Ez dute atletismoa zer den ezagutu eta egoera honekin, batzuk aspertzea eragin dezake. Kaltetu handiena Ostadarreko Atletismo saila izango da".

Eta Donostiara joateak dakarren lanaz ere ohartarazi du: "Kotxeak behar ditugu Michelinetik Donostiara materiala eramateko eta ekartzeko. Zeren ezin dugu bertan utzi. Gainera, ez dugu materiala bikoiztua eta hurrengo egunean hemen behar da, beraz saioa amaitzean berriro itzuli behar dugu. Eta badago materiala ez dena sartzen kotxean, hala nola, xabalina eta trenean horiekin ari dira joaten. Oraingoz ez diete oharta-

razpenik egin, baina komentarioak entzun dituzte".

## Informazio eza

Hilabete hauetan guztietan, gainera, taldeari bai Michelingo eremuko lanen zein Atsokarreko eremua gainera informazio eza ere nabarmendu du. "Lanak hasi baino lehen, modulu utzi behar genuela esan ziguten, baina besterik ez. Atsokarreko instalakuntzaren gainean ere ez dakigu ezer, horregatik hasi gara mugitzen eta atera genuen argazkia. Arazoren bat dagoela argi dago, inork ez du gustuko instalazio bat itxita izatea, baina ez zaigu esan arrazoia zein den. Jende askok galdetzen digu, baina ez dakigu ezer, ez dugu sarre- datarik, ez zaigu ezer esaten, kaleko jendeak dakien berdina dakigu", nabarmendu du.

Azkenik, kirol eremu berria irekitzeko beste kirolei ere onura egingo diela azpimarratu du: "Atletismo saila da kaltetuen dagoena; oraintxe bertan ez dugu instalakuntzarik. Baina futbol eta errugbiko sailei ere onura ekarriko die pista hori irekitzeko".

# Herritarrak, Euskal Kros Ligako lehen postuetan

Euskal Kros Liga amaitzear da. Hilaren 22an Amurrion lehiatuko da azken proba eta aurtengo irabazleak ezagutuko dira. Aimar Sukuntza herritarra bere mailako sailkapen buru da eta Mari Carmen Olaso, aldiz, bigarren da 55 urtekoen kategorian

## Txintxarri

Hilaren 22an, Amurrioko Nazioarteko krosa amaitzearekin bat Euskadiko Kros Ligako garaileak jakingo dira. Horien artean egon daitezke bi herritar, Aimar Sukunza Gomez eta Mari Carmen Olaso Espeso.

Urte osoan zehar lehiatu diren hamar probek osatzen dute Liga. Nahiz eta guztietan ez parte hartu, euren mailtako podiumean izan dira herritarrak hainbat probatan eta Zumeatarra taldeko kide Sukunza 23 urtez azpiko mailako sailkapeneko buru da; Olaso, aldiz, 55 urtekoen artean bigarren da sailkapenean.

Hilaren lehenean eta azaroaren 24an Ligarako baliagarri ziren bi proba lehiatu zituzten Eibar eta Laudion (Araba).

Lehena, Bolunburu Oroimezkoaren barruan jokatu zen eta horren barruan Gipuzkoako txapelketa ere izan zen jokoan. Bi herritarrek parte hartu zuten; Olosok podiumean amaitu zuen



Skunza (ezker) eta Olaso (eskuin), Laudiko podiumean. A. TALLEDO/M.C. OLASO

proba. Zehazki, 55 urteko mailako txapeldunorde izan zen Olaso; eta, master mailako sailkapen orokorrean, zortzigarren (14.56).

Eta aurretik, Laudioko krosean bi herritarrak maile ezberdinetako podiumean izan ziren. Master mailako Euskadiko txapelketa ere lehiatu zen Arabako proban.

Sukunzak promesa mailako garaikurra jaso zuen. Sailkapen orokorrean bederatzigarren izan zen herritarra 32.55eko denborarekin eta marka horrek gazteen mailako lehen postua ere eman zion.

55 urte baino gutxiagoko mailan, aldiz, bigarren sailkatu zen Olaso (29.14) eta Euskadiko txa-



Presa, Zalla-Balma-Zalla probako podiumeko gorenean. @JDiego.PHOTOSX

## Herritarrak, lasterketaz lasterketa

Lasarte-Oriako korrikalariak hainbat probatan lehiatu dira hilabeteko lehen asteburuetan eta horietako batean gainera garaile izan zen, Jon Presa Herranz herritarra.

Hilaren 1ean, Bizkaiko Zalla eta Balmaseda herrien artean egiten den Zalla-Balma-Zalla proban lehiatu zen herritarra. 14 kilometroko ibilbidea egin eta helmugara bakarka iritsi zen, 47.57 denbora eginez.

Horrez gain, egun horretan bertan, Zarauzko bikote mistoen krosean 30 bat herritar izan zen lehiatzaile. Horien artean azkarrenak, Anabel Eleno Agustin eta Xabier Mena Mujikak osatutako bikotea izan zen. 7,8 kilometroko bidea 36.18an egin zuten.

Eta Valentziara ere bidaiatu da Lasarte-Oriako ordezkariarik maratonia lehiatzera. Trinkoko kide Sergio Sierra Carranzak 42 kilometroak egin ostean, helmugaratzen 03.11.03 marka eskuratu zuen.

Bestalde, hilaren 8an, Lasarte-Oria Trail Mendi Elkarte kide Miguel Granada Nogalesek La Teja Trailean parte hartu zuen Jerez de La Fronteran (Andaluzia).

peldunordetza ere eskuratu zuen herritarrak.

Bi lasarteoriatar horiez gain, Aloña Mendi taldeko Jon Presa

Herranzek ere parte hartu zuen proba horretan eta 32.56 egin zuen. Presa Ligako zazpigarren postuan da.



LOTMEko kideak, aurreko urte batean Txindoki igotzen. LOTME

## Txindoki igotzen amaituko dute urtea LOTMEko kideek

2025 urtean antolatuko dituen ibilaldi eta jarduerak ere aurreratu ditu kirol elkarteak

## Txintxarri

Urteari amaiera emateko ohitura da Adarra, Buruntza edo Andatza

mendiak igotzea. LOTMEko kideek, aldiz, Txindoki igotzen dute. Aurten hilaren 22an egingo dute irteera.

## 2025eko ekimenak

- **Astun (Huesca)** Urtarrilaren 11n eta 12an.
- **Ibon urdinak, Bachimaña, Panticosa (Huesca)** Otsailaren 22an eta 23an.
- **Aiako Harriak** Martxoaren 22an eta 23an.
- **Udalaitz** Apirilaren 6an.
- **Beriain eta Urbasa (Nafarroa)** Maiatzaren 17an eta 18an.

- **Familia ibilaldia** Ekainaren 22an.
- **Mendi Festa** Irailaren 28an.
- **Tebarray (Huesca)** Urriaren 4an eta 5ean.
- **Artikutza (Nafarroa)** Urriaren 18an.
- **Txindoki** Abenduaren 28an.

Bi edo hiru orduko ibilbidea izango da *Euskal Cervino* bezala ezaguna den mendira. Guztira 10 kilometro eta ia 1000 metroko desnibela du bideak eta zailtasun ertaina duela jakitera eman dute antolatzaileek.

Elkarteko bazkide, lagunak zein edozein herritarrek parte hartu dezakete irteeran. Izena ematea doakoa da eta elkarte

webgunearen bidez egin dezakete interesdunek. Ibilbidearen gaineko informazioa zein aholkuak ere bertan aurki daitezke.

## 2025eko hitzorduak

Horretaz gain, 2025eko jardueren berri ere eman du LOTMEK. Ikus goiko koadroa.

Gipuzkoa, Nafarroa eta Pirinio aldean antolatuko dituzten hamar

irteera izango dira; bat hilabeteko, uztaila eta abuztua kenda. Eta horien artean daude herrian antolatzen dituzten Familia ibilaldia zein Mendi Festa.

Ibilaldi edo irteerak gerturatu ahala euren webgunean informazioa partekatu eta izena emateko formularioa eskuragarri jarriko dute.

# Kirol Galako protagonistak iragarri ditu udalak

Aiora Belartietak Galardik eta Jon Martin Vicentek 2024. urteko Kirolari onena saria eta Jose Felix Solano Menak Kirol ibilbidearen aitortza jasoko dute hilaren 15ean, arratsaldeko 18:00etan. Verdini Dantza taldearen emanaldiaz ere gozatu ahalko dute

## Txintxarri

Lasarte-Oriako Udalak urtean zehar denboraldi onena egin duten kirolariak zein kirol ibilbide aipagarriena sarituko ditu 2024 urteko Kirol Galan. Hilaren 15ean, igandearekin, arratsaldeko 18:00etan Manuel Lekuona Kultur Etxeko areto nagusian egingo da ekitaldia. Lasarte-Oriako alkate Agustin Valdiviak zein Kirol batzordeburu Goizalde Pildainek sarituak iragarri eta galaren nondik norakoak azaldu zituzten hilaren 11n egindako agerraldian.

Alkateak gogora ekarri zuen azaroan martxan jarri zen parte hartze prozesuarekin ekin zitzaiola sarituak erabakitze bideari. Herritarrek egindako proposamenak guztira sei izan dira eta horien artean kirol batzordeko mahaia sarituak aukeratu ditu. Hautagaiak ondoko koadroan ikus ditzakezue, sarika.

Horien artean, hilaren 15ean, aipamena jasoko duten herrita-

### Emakumezkoen kirolari onena

- Naroa Furundarena Urkola atleta
- Aiora Belartietak Galardi arraunlaria

### Gizonezkoen kirolari onena

- Jon Martin Vicente futbol jokalaria

### Kirol ibilbide onena

- Maialen Chourraut Yurramendi piraguista
- Jose Felix Solano Mena Intza pilota eskolako arduradun ohia
- Felix Manso Marquez xake jokalaria

rrak beltzean agertzen diren Belartietak, Martin eta Solano izango dira.

Kirol Gala ilusio handiz antolatutako ekitaldia dela nabarmendu zuen Pildainek. Sari banaketa horretan Verdini taldearen dantza emanaldiaz gozatu ahalko dela ere jakitera eman zuen zinegotziak.

Sarrera doakoa eta herritar guztie irekia da. Hala ere, txartela beharko da saribanaketa

ikusteko; ekitaldia hasi baino lehen, banatuko dituzte sarrerak, leihatilan.

Udal ordezkariak aurreko urteetako sarituak, herriko kirol elkarteak zein herritarrek gonbidatu zituzten galara, "gure herriko kirolariak herritarren berotasuna jaso dezaten; gazteek herrian dauden maila handiko kirolariak ezagutu eta egunen batean oholztan egotea nahi izan dezaten".



RFEJYDA

## Aristegik, 7. DANA gerrikoan

Azaroaren 30ean, Espainiako Judo Federazioak bere 75. urteurrena ospatzeko gala egin zuen Las Palmasen (Kanariar Uharteak). Euskal Judo Federazioko kideak izan ziren bertan, besteak beste, Lasarte-Oria Kirol Elkarte (LOKE) Gorka Aristegi. LOKEko prestatzaileak, gainera, gerriko beltzeko 7. DANA lortu izanaren diploma jaso zuen.

## Asteburuan lehiaketak izango dira, igerilekuan

Buruntzaldea IKTK Distantzia Luzeko Euskal Herriko txapelketa zein Neguko Ligako 3. jardunaldia antolatuko ditu hilaren 14an eta 15ean Maialen Chourraut kiroldegiko igerilekuan.

Lehen lehiaketa arratsalde jokatu dute. Euskal Herriko igeriketa talde ezberdinetako kideak batuko dira Lasarte-Oriako kiroldegian eta adinaren arabera, distantzia ezberdinetako estilo libreko proba lehiatuko dute; infantilek, 2.000 m.

eta junior eta seniorrek, aldiz, 3.000 m.

Hurrengo goizean, Buruntzaldea IKTKo infantil, junior eta senior igerilariak Ligako 3. saioari egingo diote aurre. Besteak beste, distantzia ertaineko 400 m. libre, 200 m. lau estilo edo 200 m. tximeleta zein bizkar probari egingo diote aurre igerilari gazteek, baita bi errelebori ere; 4x50 m. libre eta 4x50 m. lau estiloak.

Lehiaketen ondorioz, igerilekua itxita egongo da erabiltzaileei abenduaren 14an, 16:00etatik 20:00etara eta abenduaren 15ean, 09:00etatik 13:00etara

## Gabonetako lehiaketetako izena emateak martxan dira

Saskibaloiko 3x3 zein Areto futbol txapelketak zein San Silvestre lasterketa antolatuko dira oporretan

## Txintxarri

Gabonetako oporraldian, hainbat kirol lehiaketaz gozatzeko aukera izango dute herritarrek. Diziplinaren arabera, saskibaloia, areto-futbola edo korrika haur, gazte zein helduek parte hartu ahalko dute. Izena emateko epea irekia dute hiru kirol ekimenek.

Inskripzioa ixten lehena Ostadar SKTK antolatutako 3x3 saskibaloiko txapelketa da, hilaren 15ean.

Lehiaketa hilaren 28an jokatuko da goiz eta arratsalde Maialen Chourraut kiroldegian.

Goizean benjamin eta kadete arteko mailetako lehiak izango dira; arratsaldean, aldiz, junior eta seniorrak.

Antolatzaileek jakitera eman dutenez taldeak gutxienez hiru koak izan behar dira eta gehienez lau pertsonetakoak. Izena ematea formulario bidez egin behar da eta talde bakoitzak 10 euro ordaindu behar ditu.

### Areto futbol txapelketa

Horrez gain, herriko haur eta gaztetxoek Eguzki Areto Futbol taldeak antolatutako Gaboneta-



2023ko 3x3ko txapelketako neurketetako irudia. TXINTXARRI

ko VII. areto futbol txapelketan parte hartu ahalko dute; benjamin, alebin eta infantil mailako taldeak lehiatuko dira.

Inskripzio orriak Goxokis Goxua dendan jaso behar dira eta taldeak jakinarazteko azken eguna hilaren 19a izango da.

Txapelketako zehaztasun gehiagok jakiteko antolatzaileek 699

42 02 39 (Gorka) zenbakia edo [eguzkiaretofutbola@outlook.com](mailto:eguzkiaretofutbola@outlook.com) helbide elektronikoa jarri dituzte herritarren eskura.

### Lasterka urtea amaitu

Eta urteko azken egunean hitzordu ederra dute herriko kirolariak; San Silvestre lasterketaren 8. edizio izango da hilaren 31n.

Bi moldaketa dakartza probak, aurten berriro arratsalde lehiatuko da, 16:00etan, eta korrikalariak zein ipar martxako kirolariak parte hartu ahalko dute; ez da patinatzaileentzako lasterketarik izango.

Izena ematea San Silvestre lasterketako webgunean martxan da eta hilaren 28ra arte egongo da irekia. Bide horretatik egiten dutenek zazpi euro ordainduko dute.

Azken momentura arte zalanztzak dituztenek hilaren 29an eta 30ean, 11:00etatik 13:30era eta 17:00etatik 19:00etara edo egunean bertan, goizez, 10:00etatik 12:00etara aukera izango dute Antonio Mercero gunean inskripzioa egiteko. Egun horietan eginez gero, 10 edo 15 euro ordaindu beharko dute parte hartzaileek.

GURE  
GARIA

GURE  
OGIA

ORAIN  
OGI  
INTEGRALA  
ere bai

EUSKAL  
OGIA

GURE GARIA, GURE OGIA  
NUESTRO TRIGO, NUESTRO PAN



EUSKO LABEL GARIAZ EGINDAKO OGIAN  
ESPEZIALIZATUTAKO TOKIA

ESTABLECIMIENTO ESPECIALIZADO EN  
PAN ELABORADO CON TRIGO EUSKO LABEL

LASARTE - ORIA

LABE GOXO - Hipodromo Etorbidea, 3

hazi

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ELIKADURA, LANDA GARAPEN,  
NEKAZARITZA ETA  
ARRANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE ALIMENTACIÓN,  
DESARROLLO RURAL,  
AGRICULTURA Y PESCA

## KOMIKIA



## ZORION AGURRAK



**Aran**  
Bat, bi, hiru, lau, bost, sei, zazpi... Aran!  
Zorionak!

## Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri, jaioberri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitaratekoak

## Internet

· txintxarri.eus/  
zorionagurra.  
· Erabiltzaileekin sartu/ Erabiltzailerik ez baduzu izena eman.  
· Zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean paperean.

## Posta elektronikoa

· Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta nahi duzun testua.

OSTEGUNEKO 16:00AK  
ARTE JASOKO DITUGU

## TELEFONOAK

## UDALAREN TELEFONOAK

- ERREGISTROA: 943-37 16 29
- EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
- KIROLDEGIA: 943-37 61 82
- MANUEL LEKUONA
- KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
- GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
- KIUB: 943-36 16 05
- UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
- MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

## LARRIALDI TELEFONOAK

- OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
- DYA: 943-46 46 22
- GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
- UDALTZAINAK: 943-36 24 42
- ERTZAINZAK: 943-53 88 40
- SOS DEIAK: 112

## ESKUTITZA

Eskutitzak argitaratu nahi dituzten herritarrek hiru modu dituzte testua bidaltzeko: bulegora etotzea (Geltoki kalea 4, behe), txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo WhatsApp bidez, 688 68 35 10 telefonora bidaltzea. Idatzia orri hauetan publikatua izan dadin, izen-abizenak zeintzuk diren zehaztu beharko dute.



**Jaio da!**

Deitu 943-37 14 48 telefonora, bidali hauraren izen-abizenak eta jaiotze data txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.

## AZOKA TXIKIA

## ETXEBIZITZA

## SALDU

Denda saltzen dut. Okendo plaza dago. Geltoki kalea 3. 135.000 euro. Ez da alokatzen. Interesa duenak dei dezala 658 08 93 80 zenbakira.

## EROSI

Garaje bat erosi nuke herri erdigunean irekia edo itxia. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

## ERRENTAN EMAN

Bi neska gazte gara eta pisukide baten bila gabiltza. Etxea Zabaletako auzoan dago. 200 euro dira logelaren prezioa gehi gastuak aparte. Interesatu ba-zaude idatzi edo deitu telefono honetara: 663 93 51 76.

## ERRENTAN HARTU

Etxe bat alokatu nahiko nuke. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

Apartamentu txiki bat alokatu nahi dut, epe luzerako. Goizez deitu: 687 05 82 12.

## LANA

## ESKARIA

Batxilergoko Bigarren mailako ikaslea naiz eta edozein irakasgaietako klase partikularrak emateko prest nago. Harremanetarako, 678 17 15 99.

## BESTELAKOAK

## DESAGERPENA

Ipar Martxako makilak ostu dizkidate. Mesedez eskuratu nahiko nituzke. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

## HEZKUNTZA

12 urteko neska bati zatikiak edo saio partikularrak emateko norbait behar dut. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

## EMAN

Pitbull arrazako txakurra oparitzen da. 9 urte ditu eta baserrian

ohitua dago; oso ona da. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

## SALEROSKETA

Helduentzako trizikloa saltzen dut. Interesdunek 630 85 57 96 telefono zenbakira dei dezatela.

Haritz egurra saltzen dugu, tximinia edota ekonomiketarako. Eskatu ostean etxera eramateko zerbitzua dugu. Harremanetarako zenbakia, 667 23 23 00.

Zortzi eserleku dituen taxi lizentzia bat saltzen dut, Usurbilen lan egiteko. 677 37 34 66.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 13	ACHA-ORBEA
LARUNBATA, 14	LASA
IGANDEA, 15	LASA
ASTELEHENA, 16	LASA
ASTEARTEA, 17	GANDARIA-URIBE
ASTEAZKENA, 18	ORUE
OSTEGUNA, 19	DE MIGUEL

## Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00

ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52  
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49  
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51  
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74  
GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08  
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67  
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21

## GAUEKO FARMAZIA 22:00-09:00

Florida Farmacia: Mañe I Flaquer plaza 6, Hernani. 943-57 64 77

## 'URTE OSOKO GUARDIAK'

Informazio gehiago [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) webgunean eskuragarri.

txintxarri

WWW.TXINTXARRI.EUS

## Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4 (behea)  
20160 Lasarte-Oria  
G-20407557

## Administraria

Nerea Garziarena.

## Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldúa eta Maitane Aldanondo.

## Publizitatea

Iratzi Zatarain.

## Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maitane Rebe, Julen Basterra, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

## Banatzaileak:

Xuban Urdaleta, Nikola Iraola, Nora Navarro, Aimar Hernandez, Gari Iraola eta Iñigo Ibarburu.

## Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

## Publizitatea

Tel.: 943-37 14 48 (106)  
WhatsApp: 646 82 44 66  
publizitatea@ttakun.eus

## Egoitza nagusia

Geltoki kalea 4  
Tel.: 943-37 14 48 (104)  
WhatsApp: 688 68 35 10  
txintxarri@ttakun.eus

## Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.  
Lege Gordailua: SS-513/93  
ISSN: 1134-0053  
Tirada: 8.300 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA  
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia



**aldika** productos selectos

[www.aldika.com](http://www.aldika.com)  
Industrialdea 19-20 LASARTE-ORIA

ahatekinak  
ehizak eta hegaztiak  
bakailao gezatua  
ondoak  
marinatuak  
olagarroa





ESKARIAK telefonoz: 943-37 70 89  
whatsapez: 687 05 81 72  
emailez: [aldika@aldika.com](mailto:aldika@aldika.com)

**GABONETAKO zenbaki BEREZIAK  
ABENDUAREN 20AN ETA 27AN**

Zure iragarkia jarri nahi duzu?  
Jar zaitez gurekin harremanetan!

**Deskontu bereziak herrikoentzat!**

eskatu tarifak: [publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)  
943 37 14 48 (106) • 646 82 44 66

**txintxarri**

**Zatoz  
Lasarte-Oriara  
doan  
aterako zaizu!**

gutxieneko erosketa  
**10€**

BILA EZAZU BEREIZGARRI HAU

**DOAN  
PARKING  
GRATIS  
MURIAS LOIDIBARREN**

 LASARTE-ORIA  
UDALA - AYUNTAMIENTO

 LASARTE-ORIA  
TRATU ON BAT  
UN BUEN TRATO

 Euskadi, auzolana, bien común  
EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO  
TURISMO, MERKATARITZA  
ETA KONTSUMO SAILA  
DEPARTAMENTO DE TURISMO,  
COMERCIO Y CONSUMO

 MURIAS

 aterpea